

gian lekuan egon bear dam Bakul-oianeko gerizpe lo-erazlean billatuko dot, bai, uso-kumeak urruma gozoz dagozan txokoan, sorgiñen zintzarriak txintxin dagien gau izartu bake sakonean. Begi-zizta bat jaurtiko dot, bein gaututakoan, banbu-ibarreko ixiltasun antsiz betera, ots, ipurtargiak argi-itxaso diran lekura. Ta bidean iñor aurkitzen baldin ba'dot, galde egingo dautsot: Bai al daki iñok lo-lapurra nun gordeten dan ?

—Ia, nun da ori, umearen begietatik boa arzen dauan ori ? Neuk astinduko dot !

Nun, nun dago ? Aurkituko ba'neu aurkitu, erakutsiko neuskio nik zelangoa izan ; bai orixe ! Aren gordelekuko arria jasoko neuke, ta gero, an osturik daukan lo guztia artu ta etxera eroango neuke oso-osorik. Lapurra, ostera, txit gogor lotuko neuke ego bietatik, eta ondoren ibai ertzean laga : dabillega antxe kañaberaz arrainketan, lili, zume ta ii artean...

Ta gabaz, azoka itxi ta aurtxoak amaren magalean legokezanean, gau-txoriak ara joango litzakioz ta belarrietara burlaz ulu : Tira, geldotzar, ia orain nori ostuten dauskan loa 1

7

ASIERA

—Nundik nentorren ni, zuk aurkitu ninduzunean ? —itandu eutsan umeak bere amari.

Arek, barre-lorea ezpan-gain ta malko-ñirñirra begian, semea bularraren kontra estuturik, onela

erantzun eutson: —Neure biotzean zengozan zu, ene maite, beronen leia bizia bai zara. Nire ume-tako jostailu ta andrakilla artean zengozan; eta nik, goizero, Jainko-irudia egitorduan, irudi ortan zengozan zu be. Bai ta opari-maian be, gure etxe-ko Jainkoarekin; eta agurtzean, zeu be agurtzen zindudazan. Ots, nire itxarokizun eta maitasun guztietan zengozan. Bai, zu bizi izan zara ene N-zian, eta amaren bizian be bai. Zu zentozan, gizaldirik gizaldi, gure sukaldea gorde ta zuzentzen dauan gogo ezin-illaren magalean. Ni neskatxa nintzanean eta biotza orri-zabaldu, zu nire inguru zenbiltzan ifiarika, usain gozo. Zuk darizun samurtasun ezitia antxiña loratu yatan aragi gaztean, eguzkia kolore bizi sortaldean urten baiño len. Zerutiko len-maitasuna, egun-sentiko argiaren anai bizkia, mundura jatxi ziñean bizitzaren ibaian eta azkenez neure biotzean geratu...

Lilluraz, seme, zoratzen naz zuri begiraka, neure egin bait-zara guztia zareala; galduko ete zaitudan bildurrez naukazu. Zagoz emen, neure bular gaiñean oso estu ! Ai ! , zer sorgin-indarrek daust beso auletan munduko ondasuna ?

8

UMEAREN MUNDUA

Aurkitu al ba'neu nik zokotxo bare nasai bat ene umearen munduko biotz berberean ! An daukazala ba-dakit itz dagioen izarrak, ta arpegiraiño